



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: *FANTASTIC MR. FOX*

© Testua: 1970, ROALD DAHL

© 1996, QUENTIN BLAKE

© Itzulpena: 2018, AMETS SANTXEZ

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa. Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk. 48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-03-2

Lege-gordailua: M-16273-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektualak dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

A zer azeria!

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

Oliviarentzat

Hiru baserritarrak

Haranean, hiru baserri zeuden. Baserri horien jabeei negozioak ondo joan zitzaizkien. Aberatsak ziren. Bai eta gaiztoak ere. Inoiz aurki zenitzakeen pertsonarik gaizto eta zekenak ziren hirurak. Txilbor, Txikin eta Tximel zuten izena.

9





Txilborrek oiloak hazten zituen. Milaka oilo zituen. Gizen-gizena zen. Izan ere, egu-nero hiru oilasko egosi jaten zituen, patatekin lagunduta, gosaritarako, bazkaritarako eta afaritarako.


Txikinek ahateak eta antzarak hazten zituen. Milaka ahate eta antzara zituen. Ipotx tripontzi baten antza zuen. Hain zen txikia, ezen haren kokotsa ur azpian geldituko babilizateke munduko edozein igerilekutako sakonerarik txikieneko aldean. Donutsak eta antzara-gibelak jaten zituen. Gibelak ore hinguigarri bihurtu arte xehatu, eta ore hori donutsetan sartzen zuen. Dieta horrek tri-pako mina eta jenio txarra ematen zizkion.

11






Tximelek indioilarrak eta sagarrondoak zituen. Milaka indioilar zeuzkan sagarrondo-
doz betetako arboladi batean. Inoiz ez zuen
ezer jaten. Jan beharrean, bere arboladiko
sagarrekin egiten zuen sagardo bizia edaten



zuen, litroka edan ere. Zotza bezain argalazuen, eta hiruretan argiena.

*Txilbor, Txikin eta Tximel,
horra hiru baserritar ustel!
Itxuraz guztiz zatarrak,
izaeraz oso txarrak
eta ibileraz baldarrak!
A zer baserritarrak!*

Inguruko haurrek hori kantatu ohi zuten, ikusten zituztenean.



A zer azeria!

Haranaren goialdeko mendixka batean, ba- 15
zen baso bat.


Basoan, zuhaitz handi-handi bat.

Zuhaitzaren azpian, zulo bat.

Eta zuloan, Azeri aita, Azeri ama eta haien lau azerikumeak bizi ziren.

Arratsaldero, ilundu bezain laster, Azeri aitak Azeri amari esaten zion:

—Esan, maitea, zer nahi duzu ekartzea afaltzeko? Oilasko mardul bat Txilborren baserritik? Ahate bat edo antzara bat Txikinen baserritik? Ala indioilar eder bat Tximelen baserritik?



Eta Azeri amak zer nahi zuen esan ondoren, han abiatzen zen Azeri aita haranean behera isilka-misilka, ilunpean, eskatutakoaren bila.

16 Txilborrek, Txikinek eta Tximelek ondotoxo zekiten zer gertatzen zen, eta horrek beren onetik ateratzen zituen. Ez zitzaien gus-tatzen ezer musu-truk ematea. Are gutxiago norbaitek beren gauzak lapurtzea. Horregatik, gauero, eskopeta hartu, eta nor bere baserriko leku ilunen batean ezkutatzen zen, lapurra harrapatzeko itxaropenarekin.

Baina Azeria haiek baino argiagoa zen. Beti gerturatzen zen baserrietara haizeak aurrez aurre jotzen zuenean, eta horrek esan nahi zuen norbait itzaletan zelatan bazegoen haizeak urrutitik eramango zuela haren usaina Azeriaren sudurrera. Hortaz, Txilbor bere lehen oilategiaren atzean ezkutatuta bazegoen, Azeriak 45 metroko

distantziatik usaindu, norabidea berehala aldatu eta baserriaren beste puntan zegoen laugarren oilategira joko zuen.

—Malapartatua, piztia nazkagarri hori!
—oihukatu zuen Txilborrek.

—Jo eta tripak aterako nizkioke! —esan zuen Txikinek.


—Akabatu egin behar dugu —oihukatu zuen Tximelek.

—Baina nola? —esan zuen Txilborrek—. Nola demontre harrapatuko dugu lotsagabe hori?

Tximelek hatz luze bat sartu zuen sudurrean, disimulu handiz.

—Badut plan bat —esan zuen.

—Orain arte, ez duzu inoiz plan onik izan —esan zuen Txikinek.



—Ixo, eta entzun —esan zuen Tximelek—. Bihar gauean, basoan ezkutatuko gara, azeria bizi den zuloaren ondoan. Ateratzen den arte itxarongo dugu. Eta orduan... Danba! Danba! Danba!

18 —Plan ederra —esan zuen Txikinek—. Baina lehenbizi, zuloa aurkitu beharko dugu.

—Nire Txikin maitea, dagoeneko aurkitu dut —esan zuen Tximel maltzurak—. Mendixka gaineko basoan dago, zuhaitz handi baten azpian.